

PRENTSA-OHARRA

Produkzio-prozesuen automatizazioa eta digitalizazioa industria integratzaileago baterako

- *Tekniker zentro teknologikoa Masterly proiektu europarrean partzen ari da, Aernnovako ekoizpen-lerroetan abian jarriko den kasu praktiko baten bidez*
- *Ekimenak berrikuntza robotikoak ere probatuko ditu igogailuetarako armairu elektrikoen muntaketan eta Decathlonen eskaera-biltegi bateko logistikaren automatizazioan*

[Eibar, 2024ko Otsailak 27] –Produkzio-prozesuen automatizazioak eta digitalizazioak jasangarritasunaren, eraginkortasunaren eta errentagarritasunaren erronkei aurre egitea ahalbidetuko duten 4.0 manufaktura-industriarako trantsizioa ez da erraza enpresa guztientzat, eta horrek enpresa horien lehiakortasunean eragiten du gero eta merkatu globalizatuago batean.

Testuinguru horretan, **Tekniker** zentro teknologikoa, Basque Research and Technology Alliance (BRTA) erakundeko kidea, Europako **Masterly** proiektuan parte hartzen ari da 2023tik. Proiektu horren helburu nagusia da enpresa txiki eta ertainen aurrerapen teknologikoa bultzatzea eta soluzio teknologiko eta digital gehiago eta integratzaileagoak sustatzea.

Horretarako, sistema robotiko malguak, adimendunak eta langileek erabiltzeko errazak garatuko dira, industria-prozesuetan eraginkortasuna eta berrikuntza sustatzeko.

Tekniker parte hartzen ari da abangoardiako egitura aeronautikoak hornitzeko **Aernnovaren** ekoizpen-lerroetan egingo den kasu praktikoan soluzio teknologikoak emanez.

Ekimenean zehar, zentro teknologikoa arduratuko da Airbus A220ren tiradera zentralerako larruak manipulatzeko eta kargatzeko prozesuan laguntza automatizatua integratzeaz eta tiradera zentrala muntatzeko prozesua monitorizatzeke hainbat neurketa-sentsore (indarra, dimentsionala) integratzeaz.

Automatizazioa, monitorizazioa eta egokitzapena

Azken erakuslean parte hartzen dute Kieveko Unibertsitate Teknikoak, RWTH institutu alemaniarrek, CASP konpainia greziarrak eta IIT institutu italiarrak, eta gai izango da, lehendik dauden soluzio robotikoak ez bezala, tamaina, forma eta material desberdinetako pieza ugari manipulatzeko, ekoizpen-lerro malguak eta erresilienteak garatzeko helburuarekin.

Horretarako, pintza modularrak teknologia eta garabi adimendunekin konbinatuko dira, eta adimen artifizialaren (AA) bidez kontrolatzeko eta hautemateko gaitasuna hobetuko zaie.

Aldi berean, aireontziaren egituraren muntaia arintzeko eta eraginkorragoa egiteko, mihizatzea ingurune erdi-automatizatu batean egingo da. Ingurune horrek sentzore gehigarriak izango ditu ekoizpen jarraitua monitorizatzeko, piezen kalitatea bermatzeko eta langileei informazio kritikoa eskaintzeko, erabakiak hartzen laguntzeko eta erroreak edo akatsak prebenitzeko.

Berrikuntza horren gakoetako bat da modu autonomoagoan eta kolaboratiboagoan jardutea ahalbidetuko duela eta, aldi berean, sektorean lan-munduan txertatzea erraztuko duela, lan-inguruneko premietara eta edozein pertsonarengana egokitzen diren tresnak eta sistemak eskaintzen dituelako.

Horren ondorioz, produkzio-lerroan jarduten duten langileen segurtasuna eta erosotasuna hobetzea espero da, bai eta fabrikazio-prozesuaren zehaztasuna eta eraginkortasuna handitzea ere, ekoizpen lehiakorrak ahalbidetuz.

Sektore aeronautikoan erabiltzen den kasuz gain, Masterly proiektuak beste bi erakusle ere baditu: armairu elektrikoaren muntaia Kleemann fabrikatzaile industrialean, elementu desberdinen muntaketan indarra kontrolatzeko soluzioak garatuko dituena, eta logistikaren automatizazioa Decathlon konpainiaren eskaera-biltegi batean, estrategia malguagoak integratzeko.

Ekimen honetan Europako 16 bazkide ari dira parte hartzen eta 2026an amaituko da. Europar Batasuneko Horizon Europe programak finantzatu eta Greziako Laboratory for Manufacturing Systems & Automation (LMS) erakundeak koordinatzen du.

Teknikerri buruz

Tekniker Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen eta Materialen Ingeniaritzan eta ekoizpenerako IKTetan espezializatutako zentro teknologikoa da. I+G+b-aren bidez, gizarte osoari hazkundera eta ongizatea eransteko xedea dauka, eta enpresa-ehunduraren lehiakortasunari modu jasangarrian laguntzen dio. Tekniker Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ► Unai Macias
unai@guk.eus / Tel. 690 212 067

Proiektu honek Europar Batasunaren Horizon Europe programaren finantzaketa jaso du Grant Agreement N. 101091800-ren esparruan.